

IKUSIAK

*(Jean Saint-Pierre-ren izkribuak, 1919 an
ekainetik irailera bitartean eginak. ES-
KUALDUNA Baionako astekarian.)*

I

«To! Aspaldikoa! Oraino bizi?

—Nehork ez hil nahi, gaixoa. Zer da gero?

—Eta errazu, errazu... Zer ihizia haatik, zu, estakuru bat ederra emanik gelditu baitzinen Eskualdunari berriak igortzetik, «bidean zinabiltzala, eta bide luzean! Denborak ditu, ...ou! Gerlak eta oro finitu ziren geroztik, eta zu... beti delako bide luze hartan»?

—Utazu bada jendea hatsaren gainean jartzera! Egia erran, banuke gogoa, Eskualduna entzunik jauntzi berritan sartzekoa dugula, haintto bat handiturik, banuke gogoa sail ttipi bati lotzeko. Bainan zertaz apainduko dut, baratxuri ala tipula?

—Emazu Alemana! Badakizu hango berri. Emazu bada zer ikusi duzun han gaindi».

Baietz erran, eta egun haste. Hitzemanak ez baitu erre-mediatorik, atzemana niz zangotik.